



ULRIKE'RI ERANTZUNA (JARRAIPENA)

Zergaitik jarkera orreitan burura ez ekarri beste lagun edo ezagunak eta zelan eurai lagundu, zelan mesederen bat egin?

Zergaitik une oneitan ez asmau beste urko lagunai begirapen samurra egitea?

Zergaitik ezin leike, gitxienez, egurats zabalera urten eta ibillaldi bat egin, lagun gitxiaren aurpegia ikusten eta eurai entzuten egon-bearrean?

Zergaitik ez alegindu beintzat norberari ain zuzen lagundu leikioen kako-mako, trikimaillu txiki onuratsuk aurkitzen?

Zergaitik ezin leitekez ulertu gorabeera-aldi oneik eta onartu ez dirala betiko izango ondo dakien norbaitek lez?

Zergaitik norberaren buruari gogor ez eskatu iñori kalterik ez egiteko?

* * *

Gizartean lagun asko ezagutzen dodaz olango zertzelada ta jarkeretan, egoera au onartzen eta itxaropenaz eroaten dakienak eta orrek ez dauala beti irauten eta bizitzearen ibilladian illunaldi orretatik azkenean urten egiten dala ikusi dabenak.

Giza-bizitzan izan leitekez asko luzatzen diran zertzelada ta gorabeerak eta goiberaldiari azpiratzen ez jakonak eta adimenez adoretu jokatzeko dauanak urtetan dau nagusi. Ba-daki bere bizitzan gatx au daukana eta kristiñau-bidez aurrera joatea lortuten dau.

* * *

Barrero diñotsut: Aolkua emon aurretik zure goiberaldi edo larritasunaren zioak eta euren sustriaiak non daukan banaketa geiagogaz arakatu ta jakin bear neukez. Jarraitu egizu zeaztasun eta argitasun geiagogaz ori agirian ipinten. Olako arazoetan, norbera izan leiteke batera gaisoa ta osagillea, norberaren buruari barre egin leio, norbera alegindu ardura larregirik ez artzen, norberak agertu ikusmen zoliagaz goiberaldiaren zergaitia zein dan. Bear ba'da, etsipena kementsu iruntzi-bearrean, etsipenagaz bizi izaten da eta bizitza osora zabaltzen da, bear-izan barik, goiberaldiaren artegatasuna.

Zeuk begiratu egizu zergaitik minduten zarean zure umorea aldatzen dalako; ez daukazu etsipena izateko benetako errazoirik. Astiro-astiro eta Jaungoikoari begira zeure buruari eusten ikasi bear dozu, egoerea jasan, poztasuna lortu, norbera zelakoa dan eta norberak zer dakian aitzu barik.

Zu oraindik gaztea zara eta zugandik urten leike, ez bakarrik jauntxuen biziareak, baita gizabideko adiereak eta balio daben nekeak eroteko bideak be.

Edozein erantzun artzen dozula ondo diñozu. Erantzun au ez jatzu, bear ba'da balioko izango, ez jatzu izango pozbide, baiña alegintzen da beintzat aolku oneri adibideren bat emoteko. Aolku oneik emotea itxuraz erreza izan arren, izatez ez da ain erreza.

Azken-oartxu bat: Zure senditik aldendu egin gura dozula diñozu. Luzaro baten au bearrezko bide bat izango da zeure burua egiz aurkitzeko, baiña ez da egin bear indarkeriz eta iraultza-bidez. Bitartean errazoi batzukaitik edo beste batzukaitik, zeure sendian bizi bear ba'dozu eta zure senideak zeure senetik ateraten ba'zaitue, esaten dozun lez, nik auxe eskatzen dautzut: Alegindu zaitte sendi arazoetara sartzen eta eurakaz erantzukizuna izaten eta euren alde otoitz egiten. Jakitekoa da, norbera besteai zerbait eskatzen dabillean eta norberak zeozer emon bear dauala ikusten dauanean, sarritan artu-emonak aldatu egiten dirala eta dana biurtzen dala errezago. Zure guraso ta anai-arreben alde otoitz apur bat egizu.

Biotzez Kristo'gan zeurea dozun.

KARL RAHNER
(Aita Letona'k euskeratua)

POZAREN ATZETIK

Abererik ez arren aberats naiz ni oso, eguzkian baitakarst goizoro urre moltzo t'egunaren betean banoa ni pozarren.

Biotzaren baratza izarez deust bitxitu egunabar agurrak, begi ederrak ditun neskato pinpirinak. Tantz pozaren intza.

Barrea dot saltoka datrکیدanaren zai. Kezkak iruliz noa, elaiak baizen alai. Itxaropena naiz ni, zoro, zeru igoka.

Gau bako egunean udabarri da beti —illunai igesika, argiaren zalgurdi— Agurka nagokio izar baten gainean.

Poza doa pozarren ibar t'aran artetik; neu be beragaz noa itxaroen eskutik. Gaurtik aurrerakoa nigan danik ederren.

Pozaren zipriztinak nai ditut ene barne. Itunaren legorak eza daro erne. Nik bizi-lorak maite, barre txorta bikainak.

Lañoetan etxerik ba neuko. Bizia zer? Zoroaldi zoroa, itxaro ate eder. Emazte, etxe, erri, bertso katez loturik.

A. BIDAGUREN